

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca  
Travaux et actes de L'Academie Royale de la langue Basque



## ZULOAGAREN MARRAZKIA EUSKALTZAINDIAN

J. San Martin

(Separata)

Euskera XXIV (2. aldia)

(1979)-1

24

BILBO

## ZULOAGAREN MARRAZKIA EUSKALTZAINDIAN

Bergara, 1978-V-26

J. San Martin

Aspaldi ohartua nintzen Euskaltzaindiko bulegoan aurkitzen zen Zuloagaren marrazkiz. Baina azpian zeraman sinadurak ordea zalantzaz kezkatzen ninduen. Ez bakarrik dibujoguzia ikatzez egina izateaz eta sinadura bera soilik lapitzez edo harkatzez, baizik sinadura hura bera bai zen zalantzagarri. Hala ere, marrazkia esku onetik irtena zen, itxuraz emakumezko baten irudia, eta bere estiloz Inazio Zuloaga gure artista ospetsuarena.

Ikatzeko marrazki honek, lauki batean sartua, 49 x 37 zm. ditu neurriz. Duela zenbait urte, sinadura ikertzea bururatu zitzaidan eta hontarako E. Lafuente Ferrari-ren *La Vida y el Arte de Ignacio Zuloaga* (Donostia-Madrid, 1950) deritzan lehen argitalpen hartatik kopiatu nituen Zuloagaren sinadurak eta ez nion antzik aurkitzen. Egia esan, edozein artistari gertatzen zaio denborarekin sinadura bere itxuraz aldatzea; baina, hala ere, ez nion kidetasunik aurkitu.

Zuloaga pintoreak bazuen iloba bat izen-deitura berdinekoa, dibujogilea eta antzerako sinadura erabiltzen zuena, geroago inoiz "El Mozo" gehigarriz jarrita. Honen marrazki bat bada Euskaltzaindian bertan, Bilboko San Antongo eliza, udalak oroitzapenez emana; baina bere sinadura garai batean berdintsua izanarren, bere eskutikako arte estiloa bestelako zen. Aldi hartan, gehiagoko gabe, hor utzi nuen bertan behera ikerketa. Erabakirik gabe. Ba zirudien artistak marrazkia izenpetu gabe utzi zuela eta geroago norbaitek, behar bada norena zen jakinean, antzerako sinadura gehitu ziola.

Oroi, Azkuek 1935. urtean argitaratu zuen *Euskalerria-*

ren *Yakintza*-ren lehen tomoaren azala Zuloagaren "La merienda" deitu laukia edergarriz harturik egin zuela, eta hemendik ohartu gindezke elkarren arteko harremana ba zela. Beraz, ez zen harritzekoa Euskaltzaindian Zuloagaren lan bat aurkitzea. Alfonso Irigoyenek geroztik esan didanez, Azkueren paper artean aurkitu omen zuen marrazki hau eta, ederra zelako eta Zuloagarena zen ustean, markuan sarturik jarri zuela.

Aurten, Grijelmo, S. A. inprimategiak, Zuloagaren marrazkiz argitaratu nahi zuen egutegirako idaz-lan bat eskatu zidan eta artista aipatuaren lanak lasaiago aztertzeko aukera nuenez, berriz ere Euskaltzaindiko marrazkia zetorkidan oroitzapenera, eta aukera hau aprobetxatu nuen aspaldi kezkatu nintzen ikerketa berritzeko.

Arestian esan bezala, estilo aldetik Zuloagaren eskua nabari zen, baina ziurtasunez jabetzeko bestelako agiriak lortu beharra zegoen. Lehen urratsa irudiaren atzekaldean agertzen den zirrimarra hartatik eman nuen. Lagun talde bat zenez, eta era hortara egin zituen lanak begiratuaz laster konturatu nintzen "Mis amigos" deitu obraren zirrimarra bat besterik ez zela.

"Mis amigos" deritzan obra hori ordea, ekitaldi askotan landua zen, 1920tik 1936. urtera bitartean eta guztiz bukatu gabe utzi zuen; bertan agertzen diren pertsonetatik zenbait, gerragatik, herbesteratu zirenez eta gure artista 1945. urtean hil. Pertsonaje hoiere artean daude Belmonte, Duque de Alba, Valle-Inclán, P. Uranga,...? J. Beobide, P. Baroja, Marañón, Ortega y Gasset, Maeztu eta Blasco Ibáñez, antza denez.

Lafuente Ferrari-ren lehen argitalpeneko liburu hortan 178-179 orrialdeen bitartean dakarren XXXV. igeikia da, eta liburu berean 109. ilustrazioa lanaren hasiera adiarazten duena. Bigarren argitalpenean ere badator (Bilbo-Madrid, 1972); 106. igeikia bera da. Eta J. M. Arozamenaren *I. Zuloaga. El Pintor, el hombre* (Donostia, 1970) deritzan obraren 255 eta 342 orrialdeetan ere ikus daiteke.

Zirrimarra ezagutzetik I. Zuloagaren obratzat ziurtasun osoa nuen. Orain ez zegoen inolako zalantzarik. Baina irudia bera nor ote zen? Hau erabakitzea, saio nekezagoa iduritu zitzaidan; eta gauzeri antza hartzen eta irudieri kidetasuna



Zuloagaren marrazkia Euskaltzaindian.

aurkitzen haurrak begi zoliagoa dutenez, gure seme gazte Oier lagun harturik hasi nintzen liburuetatik Zuloagaren lanak banan bana aztertzen. Honela, uste nuena, egi bihurtu zen: Oierrek igarri zion "Doña Purita" deritzan erretratua eta Euskaltzaindiko marrazkiko irudiaren aurpegia ber bera zirela. Eta hala da izan ~~ete~~; elkarren parean ikustea besterik ez dago.

"Doña Purita" delako erretratua oriopinturaz egina da, E. Lafuente Ferrari-ren *La Vida y el Arte de Ignacio Zuloaga* deitu obra horren lehen argitalpenaren 140. ilustrazioan agertzen da. Zuloagaren familia du jabe eta Zumaiaiko Santiago etxean aurkitzen da. Lafuente Ferrari-gandik dakigunez, obra hau, 1941ean Madrid-eko erakusketa batean agertu zen lehen aldiz.

Euskaltzaindiko marrazki honetan irudiaren atzekaldean aurkitzen den jarlekua oraindik Zumaiaiko Santiago etxean gordetzen da, eta Getariako sakristauaren ("El campanero de Guetaria") erretratuko jarleku bera da.

"Mis amigos "eta" Doña Purita" lanen urte mugak gogoan harturik, 1920-1936 eta 1941, eta itxuraz bigarren lana egiteko erabili zuela, Euskaltzaindiko marrazkiak gerra baino lehentxoago egina dela dirudi.

Dena dela, balio handikotzat jo genezake eta merezi du ondo zaintzea.